

adrezia 'trebetasuna'	«Gutxik botako zituen aitzo horiek hainbeste adreziaz , begiak zabalik edukita ere...»	(24)
alderen alde 'alde batetik bestera'	«Minutu zenbaiten buruan mila bat gizon, haur eta emakumek Henryren balkoipeko kalea alderen alde hartua zuten.»	(89)
alimale 'ikaragarri handia'	«Eta ohetik jaiki eta mahaitxoan jarraitzen zuen bilete multzo alimalea ikusten...»	(86)
anabasa 'nahasketa, nahaste-borrastea'	«...kale osoa oihu-karraxi batean iskanbila gorrian lotutako gizaki anabasa izugarri bat bilakatu zen.»	(90)
antze 'zerozertarako gaitasuna'	«Bere antzea bakardade hertsienean praktikatu behar du...»	(30)
arramaskada 'atzaparkada, zirrara'	«Bihotzak arramaskada bat egiten dit...»	(35)
arrapazka 'astrapala, nahastea'	«Han sortu zen arrapazka zinez ikustekoa izan zen.»	(89)
arta 'ardura, arreta'	«Eta hola, erlojua erabiliz, gertatzen den guztia ongi neurtzeko arta hartzen dut...»	(37)
artatu 'jagon, zaindu'	«Gainerako egun guztia ospitaleko gaixoak artatzen igaro nuen.»	(22)
balditu 'harritu, zurtu'	«Begiak harengan iltzaturik nago, balditua .»	(38)
bandit 'bidelapurra, bandidoa'	«Behean, hall-ean, bandit txaparro mardul eta ile beltz bi zeuden...»	(103)
baratxe 'emeki, geldiro'	«Eztiki jaisten ikusten dut, baratxe-baratxe , ipurdi-masailak lastaira gainean berriro pausatzen zaizkion arte.»	(38)
barrandan 'zelatan'	«...bandit txaparro mardul eta ile beltz bi zeuden, igogailuetatik ateratzen zen jendearen barrandan .»	(103)
barrolatu 'giltzapetu, entzerratu'	«...eta bat-batean iruditu zitzaion bera ere, zen guztia, garraren barruan barrolatua zegoela...»	(62)
begitanzio 'irudipena'	«Xuxen al dakik ez dela hire begitanzio hutsa?»	(38)
besogoen 'besoen goiko aldea'	«... besogoenak gorputzaren kontra tinkaturik geratu ziren...»	(25)
bizkitartean 'bitartean'	«...eta bizkitartean hara han Imhrat Khan (...) aitzoak bionboko haurraren burutik milimetro gutxira botatzen ari.»	(24)
briu-brau 'azkar baten'	«Ezin diat Londres briu-brau utzi.»	(99)
buhatu 'putz egin, ufatu'	«Haize gogorra dabil, eta egur-ikatza kasik goritzeraino buhatzen du.»	(45)
burrustan 'borborka, kolpean, dena batera'	«Libre geneuzkan hamar minutuetan konta-ahal guztia burrustan kontatu nion.»	(56)
bururen buru 'hasieratik amaiera arte'	«Begiak zeharo estalita liburu bat bururen buru irakur dezaket.»	(52)
desenkusatu 'diskulpatu'	«Uste dut egia diozula. Horrek ez zaitu desenkusatzen bihirik ere.»	(91)
driska 'istilua, zirriparra'	«Sentitzen dut driska hori. Ez nuen uste gauzak horretarako zirenik.»	(90)
egonarri 'eroapena, pazientzia'	«Baina horri dagokionez, egonarri eta zuhurtzia ohiezak erakutsi zituen.»	(64)

emendatu 'gehitu, handitu'	«Jendemodu hori beti bide berdinetik aritzen da bere fortunak emendatzen .»	(7)
eraendu 'gobernatu'	«Munduko lau hegaletan barreiaturik, ongi eratu eta ongi eraendutako hogeii umezurtz-etxe utzi zituen...»	(107)
eralgi 'gastatu, xahutu'	«Dirutza haundi bat eralgia zuen goiko haginak esmaltatzen...»	(5)
eratzeki 'erantsi, itsatsi'	«Odolbildu hori handia baldin bada bihotzari eratzekiko zaio eta gauza seguruena da pertsona hori hil egitea...»	(84)
erreten 'ubide txikia, kanala'	«Soropilez estalitako malda baten oinetan erreten haundi bat jo dute.»	(44)
errola 'erretura'	« Errola aldean daukat oraindik. Begira hemen.»	(39)
eskudel eskaileretako eskutokia,	« Eskudelean eskurik ezarri ere ez zuen egin.»	(20)
fermu 'irmoa, sendoa'	«...baina denbora berean lehia fermu batek hartzen dit izpiritua.»	(30)
gaitzitu 'mindu, haserretu'	«Laurok nahiko gaitzituta geunden eta ez genuen ezer esan.»	(11)
geroenean 'azkenean'	« Geroenean hasi da mugitzen.»	(39)
gurbil 'zuhurra'	«John Winstonek, diruzain gurbil eta zuhurraren legean, ez zuen erantzuna tipus-tapastean eman nahi izan.»	(96)
haatik 'hala ere'	«Hitz egiten jarraitzea gonbidatu gabe geunden oraindik. Haatik ostikoka ere ez genuen bota.»	(11)
haizu izan 'zilegi izan, permitituta egon'	«Hori egia da. Baina inor ez da haizu ikustera.»	(33)
higatu 'erabileraz hondatu, gastatu'	«Agureak beroki marroi luze higatu bat zeukan...»	(87)
ibilki 'ibilian, zebilela'	«Eta benetan lazta bat ematen zuen gizon hura (...) lasaitasunean ibilki ikusteak...»	(19)
iduri eta 'dirudi(t)elarik'	«Henry Sugar bezalako gizonak non-nahi aurkitzen dira, iduri eta itsasbelarrak jitoan.»	(6)
inarrosi 'indarrez astindu'	«...bihotza hain taupada bizitan non gorputz guztia inarrosia sentitzen baitut.»	(36)
irriñarte 'zirrikitua'	«Henryren plaka hartu eta mahaiaren irriñarte batean barrena sartu zuen.»	(76)
ixtil 'ur putzutxoa, potxingoa'	«Etxola hurbilenaren ondoan ixtil txiki bat dago...»	(35)
izarniaka 'distiratzen'	«Gero ertzak argiagotu egin ziren (...) harik eta izarniaka hasi zen arte, atzean argi bat balu bezalaxe.»	(73)
izulaborri 'guztiz izaturik'	«Henry izulaborrian dago begira.»	(84)
jendemodu 'jendilajea, jendaila'	« Jendemodu hori beti bide berdinetik aritzen da bere fortunak emendatzen .»	(7)
jitoan 'noraeezan, norabiderik gabe'	«Henry Sugar bezalako gizonak non-nahi aurkitzen dira, iduri eta itsasbelarrak jitoan .»	(6)
joran 'gogo edo nahi bizia'	«Bere bizi guztian lehen aldia zuen zerbaiti benetako joranez ematen zela.»	(63)

karraskots 'zerbait apurtzearen hots sikua'	«Landaretzan karraskots moduko bat entzuten dut.»	(34)
lantzean behin 'noizean behin, noizik behin'	«... lantzean behin haren nondikakoaz izaten zuen berri bakarra, dirua igortzen zuen banketxearen helbidea besterik ez zen izaten.»	(100)
lastaira 'lastozko koltxoia'	«...eta ixtilaren ondoan otoitz egiteko lastaira bat ikusten dut...»	(35)
lazta 'izua, ikara'	«Eta benetan lazta bat ematen zuen gizon hura (...) lasaitasunean ibilki ikusteak...»	(19)
laztura 'zirrara bizia'	«Banerjeeren kolera izugarria da eta ni naizen guztia laztura batek hartua nago.»	(40)
legartu 'gatzatu, gogortu'	«Urlia hark berriz zainak legartzeko modukoak, lasaitasunez eta ziurtasunez ez al zuen egin bada?»	(79)
likin 'itsaskorra, likitsua'	«Hatzak likinegi dauzkat.»	(17)
mandil 'nagia, eralgitzailea'	«...Henry bere bizi guztian sekula lan errestorik egin gabeko play boy mandil eta dirudun gisa baizik ez zuela ezagutu.»	(94)
mehaka 'meharra, estua'	«Dabilen lekuan ez dago xendra mehaka bat ere...»	(34)
mokanes 'zapia, musu zapia'	«Mutiko indioa buruko mokanes eta izara anabasa hura kentzen ari zitzaion.»	(25)
mozkin 'irabazia, etekina'	«Beraz, nire mozkinak aldean hartu, antzerki taldea utzi eta berehala abiatzen naiz...»	(31)
muzin egin 'ezetz esan, onartu ez'	«...ez zion muzinik egiten parada egokitzen zenean bere lagunei pegadizo bat edo beste egiteari.»	(7)
odolbildu 'ubeldua, odolbatua'	« Odolbildu hori handia baldin bada bihotzari eratxekiko zaio eta gauza seguruen da pertsona hori hil egitea...»	(84)
ohiez 'berezia, ohi ez bezalakoa'	«Baina horri dagokionez, egonari eta zuhurtzia ohiezak erakutsi zituen.»	(34)
okitu 'oso-oso, ezin gehiago'	«Aberats okituei eguraldi txarra ostikada bat bezalakoa zaie.»	(8)
oldartu 'abiadura bizian hurbildu'	«Ni ere bere atzetik oldartu nintzen.»	(19)
orin 'larruazaleko orbain txikia'	«Zirujano plastiko batek, berriz, orin txiki bat kendu zion ezkerreko masailan.»	(5)
oste 'gizaki taldea	«Sei mila libratik gora hortxe abiatu ziren hegaz airean, kalean euren zain zegoen oste oihukariaren gainera.»	(89)
parada 'abagunea, egokiera'	«...ez zion muzinik egiten parada egokitzen zenean bere lagunei pegadizo bat edo beste egiteari.»	(7)
parafina 'petrolio isurkia'	«Enborrez, egurrez eta egur-ikatzez bete dute eta, gainera, parafina parrasta bat ixuri diote.»	(44)
parrasta 'kantitate handia'	«Enborrez, egurrez eta egur-ikatzez bete dute eta, gainera, parafina parrasta bat ixuri diote.»	(44)
pegadizo 'iruzurra, timoa'	«...ez zion muzinik egiten parada egokitzen zenean bere lagunei pegadizo bat edo beste egiteari.»	(7)
peko 'beheko'	«Ordu gutxiren buruan luxuzko leizetzar hura peko erre kara igorri zezakeen nahi bazuen.»	(74)
pilpira 'emozioa'	«...publikoa pilpiraren mende karraxiz eta lurrari ostikoka hasi zen.»	(25)

pixar bat 'pitin bat, apurtxo bat'	«Uste dut ederto litzatekeela jendeak haren lanaren berri pixar bat izango balu.»	(107)
porroskatu 'suntsitu, xehatu'	«... areto txipisko eta porroskatu horietako bat zen.»	(23)
poxi bat 'apur bat, pitin bat'	«—Horra diru poxi bat , plazatu arte moldatuz joateko.»	(100)
pulamentu 'ganora, zentzuna'	«Henry bere bizi guztian sekula lan pulamenturik egin gabeko gizona zen...»	(8)
punpeka 'jauzi eginez, boteka'	«...ez zuen zertan ibili behar indiako bazterrak punpeka kurritzen...»	(53)
sapa 'sargoria, bero handi itogarria'	«...eta arratsaldeko bero sapa umei osoa ere bai...»	(36)
sasi mastra 'masustondoa'	«Horma bat, poste bat, sasi mastra bat, ala zuhaitz bat izango ote zen?»	(7)
sehi 'otseina, zerbitzaria'	«Gero berriro jaitsi eta sehiaren despensara joan zen.»	(60)
soropil 'belardia'	« Soropilez estalitako malda baten oinetan erreten haundi bat jo dute.»	(44)
tarrapataka 'presa bizian, ahalean'	«Oihanez oihan, <i>tonga</i> -zaina nire zain geratu den lekuraino tarrapataka itzultzen naiz...»	(40)
tarrapatan 'arrapaladan, lasterka'	«Haurrari tarrapatan indostaneraz zerbait esan zion eta mutikoak harrotazunez buruari eragin zion, ezer esan gabe.»	(26)
terraje 'izaera, mota, tipoa'	«Eta orain Henry Sugar zer terrajeko gizona zen gutxi gorabehera badakizuelarik...»	(8)
tipus-tapastea 'ustekabea, bat-batean'	«John Winstonek, diruzain gurbil eta zuhurraren legean, ez zuen erantzuna tipus-tapastea eman nahi izan.»	(98)
trabes 'apustua'	«Mahaia beste jokalarien trabesez estalia bazegoen ere...»	(78)
tronperia 'engainua, iruzurra'	«Inportantea da lan hori medikuek egitea, bestela jendeak usteko bailuke tronperian ai naizela.»	(14)
trozatu 'troxaz edo oihalez bildu'	«...lanak izan zituen oreka gordetzeko burua trozaten zioten hainbeste gauzaren azpian.»	(24)
trumilka 'tropelean'	«Bazter guztietatik jendea trumilka inguratzen ari zen.»	(89)
turditu 'aztoratu, harritu'	«Henryk turditu egin zuen. Bere denbora guztian inoiz ez zuen ikusi inor hemeretzi tanto eskuan eduki eta beste karta bat eskatzen.»	(78)
txanbelin 'polita, grazia duena'	«John Winstonek pasaporte txanbelin bat igorri dit...»	(106)
txipisko 'txikia, eskasa'	«...areto txipisko eta porroskatu horietako bat zen.»	(29)
uharka 'bota ahalean'	«Henry iritsi zen larunbat arratsalde hartan euria uharka ari zuen.»	(8)
usma 'usaimena'	«...ariketa horiek eginez, usma zeharo galtzen dut.»	(44)
xendra 'mendiko bidexka'	«Oihanez oihan doan xendra mera batean barrena habitasen gara.»	(33)
zafrazio 'zaplastekoa, masailekoa, txaloa'	«Baina gero, a zelako zafrazioa hartzen dudan bat-batean ulertzearekin Moor profesorearen magia ez dela benetako magia...»	(30)



zafratu 'zaflatu, zafladaz jo'	«...egongelan eseri ziren, leihoetako beirak zafratzen zituen euriari aspertu antzean so.»	(8)
zizpildu 'kiskali'	«...eguzkia sartu ondoan ere zizpiltzeko beroa egiten zuen.»	(22)
zurimin 'zuri-zuria'	«...gero ertzak argiagotu egin ziren eta zuriminago egin zen, distiratsuago...»	(73)
zuruburru 'nahasmendua, iskanbila'	«...hara non (...) kaleko trafikoaren zuruburru eta zalaparta guztiaren erdi-erdira sartzen den!»	(21)